

SARA
HERRIKO ETXEA



SARARI BALHOREAREN
ETA LEYALDASUNAREN
SARIA EMANA
LUIS XIV-ER 1695-AN



KONTRABANDISTEN EGUNA

SARA

2019ko abuztuaren 25a, igandea – 10:00

2019ko prentsa dosierra



KONTRABANDISTEN
Eguna
Sortzaileen Merkatua plazan
Marché des créateurs au fronton

ABUZTUAREN 25 Aout
SARA

Estangatarak Tikilariak
Ibilaldia pottokaz
Promenade à Pottok

12h: Murbikoak
3.30tan : Lanretetarak AIZKOLARIAK - JOALDUNAK
15h30: BUCHERONS - JOALDUNAK
5etan : KONTRABANDISTA TTIKI (2013...2008 Urteak)
17h: COURSE POUR LES ENFANTS (années 2013...2008)

6etan : KONTRABANDISTEN LASTERKETA
18h: CROSS DES CONTREBANDIERS
TALO eta OSTATUA

[K]
KANALDUDE

Kontrabandisten Lasterketaren 56. edizioa 2019ko abuztuaren 25an, igandean, 18:00etan, Saran gertatuko da. Naturan gaindi egiten den lasterketa hau Sara Korrika elkarteak antolatzen du, Sarako Herriko Etxearekin eta Euskal Elkargoko Turismo Bulegoarekin elkarlanean.

8,4 km-ko itzulia Sarako plazan hasten da (77 m-ko goratasunean). Korrikalariak Zazpi Fagora doaz lehenik (522 m-ko goratasunean), eta, gero, helmugara heltzen dira (Sarako plazara, abialekura).

Aurten ere, haurrendako lasterketa ttipia antolatuko da ere.



Sara Korrika kluba 1999 urtean sortu zen, mendizale eta lasterketa-zale ziren korrikalari amatuer batzuek bultzaturik. Korrikalariak tokiko proba anitzetan (Kontrabandisten lasterketan, Larrungo lasterketan, Ezpeletako mendi gainen lasterketan, Oleta-Jasola-n) eta urrunagoko lasterketa anitzetan parte hartzen dute, hala nola Viñamalan, Aubrac-en, Lakako lasterkaldian, Euskal Trailean, Zegama-Aizkorri maratoian...

2006an, lehen aldikoz, Sara Korrika Trailaren 1. edizioa antolatu zuen klubak: 25 kilometroko lasterketa, herritik abiatuz eta Larrungo mendi mazeletarik pasatuz. 200 parte hartzaile izan ziren.

Historikoa

Kontrabandisten lasterketa 1961ean sortu zuen « Sarako Izarra » izeneko lagun talde batek. Tradizioz, lasterketa abuztuaren hondarrean iragaten da.

Lasterketa honen berezitasuna da korrikalariak galtza luze beltzekin eta tixerta edo ator xuriarekin janzten direla. Lehen 1 500 metroetan, gizonak 8 kg-ko eta emakumeak 4 kg-ko zakua bizkarrean harturik dabilta. Berako bidegurutzean zakua uzten dute eta itzulerako bidean berriz hartzen dute.

Beste berezitasuna da lasterketan ezin duela edonorrek parte hartu.


Sarako Herriko Etxeak lasterketa hau tradizioz mantendu du eta inguruko herri batzuk gomitatzen ditu. Herri horiek beren bi korrikalari onenak hautatzen dituzte, herria ordezkatzeko. Horiek dira gomitatu herriak: Ainhoa, Azkaine, Baigorri, Ezpeleta, Donibane Garazi, Hendaia, Sara, Senpere, Urruña, Bera, Elizondo, Etxalar, Hondarribia, Irun, Lesaka, Urdazubi, Luzaide eta Zugarramurdi.

Sarako herriak herri horiek hautatu ditu denek kontrabandoaren ondare bera partekatzen dutelako. Izan ere, 2001 arte, leku askotan, gizonak « gauazko lana » egiten zuten.

Orotariko merkantziak garraiatzen zituzten, hala nola abere taldeak, dentela, azukrea... Trukeak euskaraz egiten zituzten, mugaren bi aldeetako hizkuntzan.

Mendi gune horietarik gizonak eta emazteak pasatzen ziren ere, gerlei edo frankismoari ihesi.

Beraz, lasterketa Sarako herriaren historiaren zati bat oroitarazteko sortu zen.



2018ko korrikalariak



Sarituen zerrenda

1990az geroztik:

1990: Koxe ORONOZ, 40'50'', SARA

1991: Michel LARZABAL, 45'37'', SARA

1992: Juan-Manuel IRAZOQUI, 41'09'', BERA

1993: Patxi PIKABEA, 42'30'', BERA

1994: Michel LARZABAL, 41'53'', SARA

1995: Angel Mari AIZPIOLEA, 41'11'', IRUN

1996: Angel Mari AIZPOLEA, 41'25'', IRUN

1997: Fabrice EGUIAZABAL, 44'10'', HENDAIA

1998: Michel LARZABAL, 42'01'', SARA

1999: Iñaki LOPETEGUI, 42,45'', ZUGARRAMURDI

2000: Ramuntxo LAMOTHE, 40'31'', SARA

2001: Ramuntxo LAMOTHE, 40'02'', SARA

2002: Ramuntxo LAMOTHE, 38'58'', SARA

2003: Ramuntxo LAMOTHE, 39'36'', SARA

2004: Fernando ETXEGARAI, 40'25'', BERA

2005: Ramuntxo LAMOTHE, 38'56'', SARA

2006: Fernando ETXEGARAI, 38'36'', BERA

2007: Fernando ETXEGARAI, 38'52'', BERA

2008: Fernando ETXEGARAI, 40'16'', BERA

2009: Iñigo LASAGA, 43'27'', ETXALAR

2010: Fernando ETXEGARAI, 40'24'', BERA

2011: ezeztatua, bero ikaragarriagatik

2012: Fernando ETXEGARAI, 39'23'', BERA

2013: Fernando ETXEGARAI, 39'59'', BERA

2014: Joseba LARRALDE, 41'09'', BERA

2015: Fernando ETXEGARAI, 41'53'', BERA

2016: Joseba LARRALDE, 40'34'', BERA

2017: Daniel IPARRAGUIRRE, 42'25'', ETXALAR

2018: Guillaume LEVOY, 40'32'', AINHOA

Errekorrak

Denbora: 38'36'', 2006an, Fernando ETXEGARAI, BERA

Garaipenak: 8 (2004, 2006, 2007, 2008, 2010, 2012, 2013, 2015), Fernando ETXEGARAI, BERA

5 (2000, 2001, 2002, 2003, 2005), Ramuntxo LAMOTHE, SARA

Parte hartzeak: 43, Rikardo TORO

40, Michel LARTIGAU

Eguna nola iraganen den

Egun guzian, pilota plazan, Sortzaileen merkatua izanen da. Hogeita hamar bat eskulangile eta sortzaile bilduko dira, beren produktuak aurkezteko eta beren fabrikazioak erakusteko.

Eskulangileen artean, saski, kaiku eta makila fabrikatzaileak, arotz bat eta altzari maiusturu bat izanen dira.

Sortzaileen artean, Ez Kexa jantzi markako saratarrak, bitxi, xaboi, zaku, haur eta helduendako ehun eta baxera egileak, egur gaineko grabadura egileak eta landaretarik egin prestakuntza egileak izanen dira.

Egun guzian ere puzgarriak haurrentzat, trikilariak eta lkastolako ostatua.

10:00etatik 12:30era, gazteek pottoka ibilaldiak egiten ahalko dituzte.

12:00etatik aitzina, plazan, mutxikoak izanen dira.

15:30etik 16:30era, aizkolarien enbor mozte erakustaldiak izanen dira.

17:00etan, Kontrabandista Ttiki lasterketa hasiko da (2013-2008 urtekoentzat).

18:00etan, Kontrabandisten Lasterketako korrikalariak abiatuko dira.



Helburuak

Urtean kirol eta besta hitzordu bat antolatzea, saratarrentzat, euskal herritarrentzat eta turistentzat.

Herrien arteko trukaketak eta jendarte oneko harremanak betiketzea, kirolaren eta euskararen bidez.

Herriaren iraganaz oroitzea, egunaren gaiaren eta lasterketako jantzien bidez.

Lekuko merkatarien eta zerbitzu hornitzaileen alderdi onak agerian ematea, parte hartzaileei eskaini sarien bidez.

Laguntzaileak eta Partaideak

Antolatzaile taldeak laguntzaile fidelak eskertzen ditu antolaketan parte harturik. Partaideak eskertzen ditu ere, hala nola Sarako merkatariak eta zerbitzu hornitzaileak, haiek gabe ez litzatekelako ekitaldi hau antolatzen ahal.

Harremanetarako

Sarako Herriko Etxea: 05 59 54 20 28

Sara Korrika, Jean-Philippe Amorena: 06 30 93 13 08 / jp.amorena@orange.fr

Esteban: 06 03 02 87 73 / estebarneix@live.fr

Joanna: j.indaburu@otpaysbasque.com